

Goi-mailako joskintzako teknikak
Ikastaro presentziala
Hastapen-maila

Jantzigintza

2026.09.11—13



CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Sarrera

Ikastaro honetan, Balenciaga Etxearen jostundegietako metodo eta prozeduretarako hurbilketa espezializatua egingo dugu. Erakustaldi teknikoan, ariketa gidatuen eta etengabeko lan praktikoaren bitartez, parte-hartzaileek bertatik bertara ezagutuko dituzte lanbide honen bereizgarri diren prestakuntzaren, muntatzearen eta akaberaren prozesu tradizionalak.

Prestakuntza-esperientzia bereziki praktikoa emateko egituratu da programa, esku-trebetasunak garatzera eta artilezko jantziak artisau moduan egiteko prozesuan baliatzen diren irizpide teknikoak ulertzera bideratuta. Saioetan, goi-mailako jostuntzako joste- eta lisatze-jarduerak ez ezik, jantziaren kalitatea, bolumena eta behin amaituta duen jokabidea definitzen duen logika ere ezagutuko dira.

Ikastaroan modu berezian landuko dira artilezko oihalen tratamendua, artehunak ongi aplikatzeko era, lisatzearen kontrola (modelatze-tresna gisa) eta eskuzko akaberak. Zehazki, artilezko kapa motz bat egingo da —Cristóbal Balenciagaren ekoizpenean ohiko tipologia—, eta Balenciaga lepo bat erantsiko zaio. Ariketa horren bitartez, jostun haren irtenbide teknikoak eta eraikuntzari dagozkionak ulertu ahal izango dira, lepoa hartuz jostuntzan dauden osagai konplexuenetakotzat eta azken emaitzaren erakusgarritzat.

Jantzigintza	Iraupena	Modalitatea
1. Hastapen-maila	20 ordu	Presentziala
2. Erdi-maila A	25 ordu	Online
2. Erdi-maila B	25 ordu	Online
3. Maila aurreratua	35 ordu	Presentziala

-
- Helburuak
- Parte-hartzaileak Balenciaga Etxearen tradizioari lotutako goi-mailako joskintzaren oinarritzko tekniketan barneratzea.
 - Joskintzako ehun nagusien ezaugarriak eta jokabideak ulertzea, bereziki artilezkoak, eta orobat ulertzea horiek jantziaren osaeran eta akaberan duten eragina.
 - Trebetasun praktikoak hartzea jantzi egituratuei aplikatutako eragiketa berezietan, hala nola prestatzea, ebakitzea, muntatzea, albaintzea, jostea eta lisatzea.
 - Joskintzako jantzien egituraketan eta egonkortzean erabiltzen diren artehunak, xingolak eta bestelako materialak zuzen erabiltzen ikastea.
 - Bolumena lisatzearen bitartez eta ehuna manipulatzeko lortzeko teknika tradizionalak ezagutzea.
 - Artisauen erara lantzea joskintzako xehetasun teknikoak, hala nola ehun gainjarriz egindako botoi-zuloak, bistak, barrenak eta barrualdeko akaberak.
 - Balenciaga lepo bat egiteko eta muntatzeko prozesua ulertzea, kapa motz batean aplikatuta. Bai alderdi teknikoei bai formalei erreparatuko zaie.
 - Zehaztasuna, behaketa eta zorrotasun teknikoa bultzatzea josteko prozesuak eskuz egiteko prozesuan.
 - Goi-mailako joskintzarekin eta artisauen ezagutzen transmisioarekin lotutako lanbideen ondare balioa eta balio kulturala helaraztea parte-hartzaileei.

Metodologia

Ikastaroaren metodologia ikaskuntza praktikoan eta mailaz mailakoan oinarrituko da, eta, horretarako, irakaslearen erakustaldi teknikoak eta banakako aplikazio-ariketak uztartuko dira.

Bloke guztietan izango dira prozesuei eta materialei buruzko azalpenak, guztiak ere joskintzari, muntaketari eta lisatzeari buruzko zuzeneko erakustaldietan oinarrituta. Horren ondoren, parte-hartzaileek proposatutako ariketak egingo dituzte, behatutako teknikak baliatuz eta ikastarorako proposatutako jantzietan aplikatuz.

Metodologia horretan lehentasuna emango zaio zuzeneko esperimentazioari eta esku-trebetasunak garatzeko prozesuari, halako eran non parte-hartzaileek modu praktikoan ulertuko dituzten landutako teknikak eta etorkizunean aplikatu ahal izango dituzten diseinatze, patroigintzarako eta josteko proiektuetan.

I. Ikastaroaren eta egitarauaren aurkezpena

II. Goi-mailako jantzigintzako tekniketara sarrera

III. Joscintza ehunak eta euren ezaugarriak

- Artile-haria
 - Oihala
 - Sarga
 - Kaxmirra
 - Gabardina
 - Alde bikoitza
-

IV. Ariketa praktikoa: artilezko kapa motzaren aurrealdea

- Ehuna prestatu eta histu
 - Aurrealdea, albo eta atzealdea markatu
 - Artehuna moztu
 - Pintza irekia
 - Pintza konpentsatua
 - Aurrealde irekia josi
 - Bizkarraldea josi
 - Xingolak aurrealdeko ertzetan aplikatu
 - Botoi-zulo gainjarria egin
 - Botoi-zuloa bistan brodatu
 - Bista josi
 - Artehuna barrenean aplikatu
 - Barrena josi
 - Lisatu
-

V. Ariketa praktikoa: Balenciaga lepo bat jostea

- Lepoa prestatu eta moztu
- Artehuna ezarri
- Lepoa eta lepo-oina zulatu
- Etena markatu
- Itsaspena prestatu
- Lepoaren estalkia moztu
- Lepoa josi eta nabarmendu
- Lepoa txaketara itsatsi
- Bista eta lepoaren estalkia itxi

Javier Martín

Ávilan jaio zen, baina Madrilen bizi da. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan graduatu zen, 1991. urtean, modako goi-mailako diseinatzaile gisa. Prestakuntza-urteetan, Carmen eta Emilia Carriches ezagutu zituen. Bi emakume horiek hiriburuko EISA tailerreko langileak ziren, baita tailerreko buru Felisa Irigoyenen eskuineko eskuak ere. Bi emakume horiengandik Getariako moda-sortzailearen jostintza-teknika espezifikoak ikasi zituen eta, ondoren, bere diseinuak zehaztu dituzten bolumenen eraikuntzari buruzko ezagutza ere jaso zuen.

Hamar urtean Sybillaren taldeko kidea izan zen, 2005era arte. Urte horretan, goi-mailako jostintzara bideratutako bere marka propioa sortzea erabaki zuen, Nihil Obstat izeneko. Diseinatzaile gisa eta beste sortzaile batzuekin lankidetzan aritzen da; esaterako, Carmen March, Jesús del Pozo edo Joaquín Trías sortzaileekin. Azken hori Balenciaga etxeko maniki baten biloba da. Horiei guztiei aholkularitza teknikoak ematen die. 2012tik 2019ra, Delpozo marka espainiarerako egiten du lan. Bertan, bildumaren zati baten bolumenak modelatu eta garatzen ditu, eta nazioartean sona duten luxuzko prêt-à-porter jantziak egiten ditu.

Irakaskuntzan ere aritzen da eta Espainiako Gobernuko Hezkuntza Ministerioi hezkuntza-proiektuetan parte hartu du. Horrez gain, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Centro Superior de Diseño de Modan, Diseinuaren Europako Institutuan, eta Granadako Estación Diseño izeneko eskolan diseinuari eta modelatzeari buruzko ikastaroak eman ditu, besteak beste. 2015. urteaz geroztik Cristóbal Balenciaga Museoaren hezkuntza programan parte hartzen du, Balenciaga Etxeko tailerretan erabilitako jostintza teknikak bildu eta helaraziz.



Datak	2026ko irailaren 11tik 13ra Guztira, 20 orduko jarduera
Orduetgia	Irailaren 11a, ostirala, 14:30-18:30 Irailaren 12a, larunbata / irailaren 13a, igandea, 09:30-13:30 / 14:30-18:30
Hizkuntza	Ikastaroa gaztelaniaz emango da.
Parte-hartzaileak	<p>Moda Diseinuko eta patroigintzako eta joskintzako ikasleak edo arlo horretako tituludunak, modako profesionalak, eta goi-mailako joskintzako tekniken inguruko ezagutzak jaso edo horretan sakondu nahi duten pertsona guztiak.</p> <p>Gehienez ere, 20 parte-hartzaile izango dira. Eskatutako dokumentazioaren arabera, parte-hartzaileen aukeraketa egingo da, eta ekainaren 30etik aurrera adieraziko da zeintzuk diren esleitutako plazak.</p>
Baldintzak	Parte-hartzaileek joskintza-teknikei buruzko ezagutzak izan eta egiaztatu beharko dituzte, eta jantzi bat moztu, josi eta prestatzeko gai izan beharko dira.
Izen-ematea	Izen-emateak irekita egongo dira ikastaroaren argitaratzen den egunetik hasi eta ekainaren 15era arte (egun hori barne, 14:00ak arte), Interesdunek online dagoen inskripzio-formularioa bete beharko dute. Modaren esparruan duen trebakuntza eta esperientziaren berri eman behar du curriculum vitaean. Era berean, motibazio-gutuna aurkeztu behar da. Bertan, interesdunak jarduerarekin duen interesaren berri eman behar du, bai eta jardueraren edukiarekin duen lotura ere. Osatu gabeko edo epez kanpo jasotako eskariak ez dira onartuko.

Prezioa 290€. Prezioak 35€ko euroko balioa duten materialak barne hartzen ditu. Museoak parte-hartzaile bakoitzarentzat beharrezkoa den materialaren kit bat izango du; eta kit horrek artilezko oihala, artehuna eta kotoia izango ditu. Bestalde, parte-hartzaileek joskintzako oinarritzko tresnak (artaziak, orratzak, jostorratzak, hariak, marka-harria, etab.) ekarri beharko dituzte.

Cristóbal Balenciaga Fundazioak jaso beharreko matrikularen prezio garbia lehen aipatutakoa da. Bankuko gastu guztiak parte-hartzailearen kontura izango dira.

«Museoaren Lagunei» legokiekeen deskontua matrikula egiten den unean gutxienez bi urteko antzintasuna duten lagunei mugatzen zaie.

Plaza mugatuak/Aldez aurretik izena eman behar da

Parte-hartzaileen gutxienerako kopururik lortzen ez bada, jarduera bertan behera gelditzen dela jakinaraziko zaie interesdun guztiei, eta matrikularen zenbatekoa itzuliko da, hala dagokion kasuetan.

Amaitzean, jardueran parte hartu izanaren egiaztagiria emango da.

Harremanetarako T +34 943 004 777
info@fbalenciaga.com

Laguntzailea

ALFA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@Cristóbalbalenciagamuseoa.com
www.Cristóbalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

